

## Xedapen Orokorrak

### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

4072

3/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2010. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.

### GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2010. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko, 3/2009 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 2009ko abenduaren 23a.

Diputatu nagusia,  
MARKEL OLANO ARRESE.

### HITZAURREA

2010. urteko Aurrekontuak norabide egokia du, egungo krisi egoerak dakartzan erronkei aurre egite aldera. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aurrekontu eta gastu austeritatearen bidez, hazkunde eta egonkortasun ekonomikoaren alde egiten du.

Testuinguru honetan, 2010. urteko Aurrekontuak Krisiaren Aurkako Plana barneratzen du, lurraldearen dinamizazio ekonomiko eta soziala bultzatzeko.

Ildo honetatik, funtsezkoa da enpresa eta pertsonengan krisiak dituen efektuak gutxitzeko politikari lehentasuna ematea eta produkzio-ehuna indartzea, Gipuzkoaren lehiakortasunean eragite aldera.

Lurraldearen ongizatea garatzeko, udal eta Diputazioaren arteko elkarlana beharrezkoa den heinean, aurrekontu hauek udalen aldeko diru-laguntzak barneratzen dituzte 81 milioi euroko zenbatekoagatik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2010. urterako Aurrekontu Orokorrak exekuzio-tresna nagusiak dira 2007-2011 Kudeaketa Plana eratzen duten foru politika publikoak aurrera eramateko. Politika hauek beharrezko gisa proposatzen dira ekonomiak aberasta-

## Disposiciones Generales

### JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

4072

NORMA FORAL 3/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2010.

### EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2010», a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 23 de diciembre de 2009.

El Diputado General,  
MARKEL OLANO ARRESE.

### PREÁMBULO

El presupuesto para 2010 tiene la orientación adecuada para poder afrontar con éxito la actual coyuntura de crisis. Para ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de su Presupuesto y en un marco de austeridad en el gasto, favorece el crecimiento y la estabilidad económica.

Dentro de este contexto, el presupuesto para el año 2010 incorpora el Plan Anticrisis cuyo objetivo es el de impulsar y coadyuvar la dinamización económica y social de Territorio.

En esta línea, resulta fundamental priorizar las políticas que minimicen los efectos de la crisis sobre las empresas y las personas y fortalezcan el tejido productivo, incidiendo en la competitividad de Gipuzkoa.

Atendiendo a la necesaria colaboración entre los ayuntamientos y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del bienestar de este territorio, estos presupuestos contemplan subvenciones a los ayuntamientos por una cuantía de 81 millones de euros.

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2010 son la principal herramienta de ejecución del conjunto de políticas públicas forales que conforman el Plan de Gestión 2007-2011 que se proponen como necesarias

suna sortzen jarrai dezan eta administrazio publikoak beharrezko babes soziala eskaini dezan.

2010eko ekitaldian, Aurrekontu Orokorrek aurrekontu arruntarekin batera «2008-2011 Kudeaketako Aurrekontu Berezia» izeneko kredituak –ekainaren 10eko 2/2008 Foru Arauak onartutakoak– barnertzen dituzte. Hau guztia legealdi honetan pertsonen ongizatea, berrikuntza, sorkuntza, lehiakortasuna eta iraunkortasuna bermatzen dituen lurralde adimentsu gisa Gipuzkoa kokatuko duen aparteko bultzada gauzatzeko.

2008-2011 Kudeaketako Aurrekontu Bereziko diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatzen da soil-soilik, eta horrek bide ematen du datozen urteetan jarduketa estrategiko jakin batzuk aurrera eraman daitezten azpiegitura eta ekipamendu alorrean, dauden baliabide finantzarioak Gipuzkoako gizarteari bihurtuz.

Aurrekontuen Foru Arauaren funtsezko edukia I. tituluan jasota dago, foru sektore publikoaren sarrera eta gastuen egoera guztiak onartu eta Gipuzkoako zergei dagozkien gastu fiskalen zenbatekoa jasotzen den neurrian.

Halaber, titulu horretan jasota dago Gipuzkoako Batzar Nagusien Aurrekontuko sarrera eta gastuen egoeraren zenbatekoa.

II. tituluan, Foru Aldundia zorpetu eta bermeak emateko muga ezartzen da, bai eta foru merkataritza-sozietateak zorpetzeko muga ere.

III. tituluan jasota daude, aldiz, 2010eko ekitaldian aurrekontu kredituen araubide orokorrari eta haien aldaketei aplikatzekoak diren berezitasunak. Zehazki, hauek: kredituen muga izaeraren araubide orokorraren salbuespenak; kreditu zabalkorren kontsiderazioa, konpromiso kredituak sortzeko eta bantatzeko gehieneko muga; eta kreditu gehikuntza eta txertaketen berezitasunak.

IV. tituluan, aurrekontu kudeaketako hainbat arau jasota daude –hala nola diru laguntzei, proiektu kofinantzatuei, gastuaren gauzatzeko mugari, egindako gastuaren udalerriko xehakatzeari buruzkoak–, bai eta Batzar Nagusiei eta foru sektore publikoaren gainerako entitatei transferentziak egiteko araubidea ere.

Diputatu Nagusiak zein foru diputatuek banakako diru laguntzak emateko ahalmena dute, beti ere nork bere departamentuko aurrekontuaren kargura izanik eta 15.000 eurotik gorakoak ez badira.

V. titulua Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Uliazpi Fundazioaren foru organismo autonomoaren (langileen eta pasiboen kredituen araubidea) aurrekontu plantilaren osaera zehazten du, eta aurrekon-

para que el tejido económico siga generando riqueza y la administración pública ofrezca la protección social necesaria.

Así mismo, los Presupuestos Generales incorporan los créditos aprobados bajo la denominación de «Presupuesto Extraordinario de Gestión 2008-2011», con el objeto de materializar un impulso extraordinario en esta legislatura para lograr situar a Gipuzkoa como un territorio inteligente que garantice el bienestar de las personas, innovador, creativo, competitivo y sostenible.

La financiación del «Presupuesto Extraordinario de Gestión 2008-2011» exclusivamente con cargo al remanente de tesorería, esta permitiendo durante estos años el desarrollo de determinadas actuaciones estratégicas en infraestructuras y equipamientos, revertiendo de esta forma a la sociedad guipuzcoana las disponibilidades financieras existentes.

El contenido esencial de la Norma Foral de Presupuestos se recoge en el Título I por cuanto que se aprueban la totalidad de los estados de ingresos y gastos del sector público foral y se consigna el importe de los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluye en este Título el importe de los estados de gasto e ingreso de los presupuestos de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

El Título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías de la Diputación Foral y el límite de endeudamiento de las sociedades mercantiles forales.

En el Título III se regula las especificidades a aplicar durante el ejercicio 2010 al régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones. En concreto, las excepciones al régimen general del carácter limitativo de los créditos, la consideración de créditos ampliables, el límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso, así como las especificidades de las habilitaciones.

El Título IV recoge aquellas normas relativas a la gestión presupuestaria en materia de subvenciones, proyectos cofinanciados, limitación a la ejecución del gasto, municipalización del gasto realizado, así como al régimen de transferencias a las Juntas Generales y al resto de entidades del sector público foral.

Se fija la competencia del Diputado o Diputada General y de los diputados o diputadas forales para la concesión de subvenciones individualizadas, con cargo al presupuesto de su departamento, siempre que su importe no sea superior a 15.000 euros.

El Título V, se desglosa en dos capítulos, dedicado el primero al régimen de los créditos de personal y de pasivos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Organismo Autónomo Fundación Uliazpi, en el que

tuen I. kapituluaren mugak zehaztasun handiagoz arautzen ditu.

Arau horiek berariazko beste batzuekin osatu dira: lan publikoaren eskaintza, lanpostuen zerrenda eta azken horiek betetzeko jarraibideak.

II. kapituluak plantilaren osaera eta Foru Sektore Publikoa osatzen duten gainontzeko entitateen langileria gastuen igoera muga arautzen ditu.

VI. tituluan –lurralde historikoko udalen finantzaketa–, ekitaldiko lehen seihilekoaren denbora muga ezartzen da, 2010eko ekitaldian haien zergak borondatezko epean biltzea Foru Aldundiaren esku uzten duten udalerrientzat aurreikusitako ondasun higiezin gaineko zergaren konturako aurrerakinak ordaintzeko.

VII. tituluan, aldiz, Foru Aldundiak aldizka Batzar Nagusiei bidali beharreko informazioa jasota dago. Titulu honetan ez dago aldaketa handirik aurreko ekitaldiaren aldean.

VIII. tituluan, Batzar Nagusietako aurrekontuen kudeaketarako arauak jasota daude.

## I. TITULUA

### AURREKONTUEN ONARPENA, HEDADURA SUBJEKTIBOA ETA EDUKIA

#### **1. artikulua.**– Aurrekontuak onartzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2010eko Aurrekontu Orokorrak onartuta geratu dira foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

**2. artikulua.**– Gipuzkoako Aurrekontu Orokorren osaera.

2010eko Gipuzkoako Aurrekontu Orokorrak honela osatuta daude:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua.
- b) Uliazpi Fundazioaren foru organismo autonomoaren aurrekontua.
- c) Bidegi SA, Etorlur SA eta Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA (Izfe) foru merkataritza-sozietateen aurrekontuak.

Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekontua ere sartu da, behar den ondorioarako.

#### **3. artikulua.**– Aurrekontu Orokorren edukia.

1.– Ordainketa kredituak eta sarrera kontsolidatuen egoera 4.576.224.329,99 euro izango da, 2010eko ekitaldian. I. eranskinean laburtutakoaren arabera.

se concreta la composición de la plantilla presupuestaria y se regula de forma más precisa las limitaciones al Capítulo I de los presupuestos.

Se completa esta regulación con normas específicas para la oferta de empleo público, la relación de puestos de trabajo y la provisión de estos últimos.

El segundo Capítulo regula la composición de la plantilla y las limitaciones al aumento de gastos de personal del resto de las entidades del sector público foral.

El Título VI, referente a la financiación de los municipios del territorio histórico, introduce el límite temporal del primer semestre del ejercicio para el abono de los anticipos a cuenta del Impuesto sobre bienes inmuebles previstos para aquellos municipios que en el ejercicio 2010 deleguen en la Diputación Foral la recaudación en vía voluntaria de tributos propios.

El Título VII que establece la información periódica que debe remitir la Diputación Foral a las Juntas Generales, no presenta modificaciones significativas respecto al ejercicio anterior.

El Título VIII recoge las normas de gestión presupuestaria de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

## TÍTULO I

### APROBACIÓN, ALCANCE SUBJETIVO Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

#### **Artículo 1.**– Aprobación.

Se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2010 en los términos establecidos en la presente Norma Foral.

**Artículo 2.**– Ámbito de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Integran los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2010:

- a) El presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- b) El presupuesto del Organismo Autónomo Foral «Fundación Uliazpi».

c) Los presupuestos de las sociedades mercantiles forales Bidegi, S.A., Etorlur, S.A. y Sociedad de Servicios Informáticos, S.A. (Izfe).

Se incorpora, a efectos del debido orden, el presupuesto de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

**Artículo 3.**– Contenido de los Presupuestos Generales.

1.– Los créditos de pago, así como el estado de ingresos consolidados alcanzan para el ejercicio 2010 el importe de 4.576.224.329,99 euros, según el resumen que se recoge en el anexo I.

2.– Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren gastuen egoera 4.200.286.447 euro da, ordainketa kredituei dagokionez, eta 295.708.216 euro, aldiz, konpromiso kredituei dagokienez. 2010. urtetik aurrerako ekitaldietarako banakapena II. eranskinean zehaztuta dago, 2008-2011 Kudeaketako Aurrekontu Bereziari dagozkion kredituak ere barne direla. Azken horiek 38.957.855 eurokoak dira, guztira, ordainketa kredituei dagokienez, eta 25.472.836 eurokoak konpromiso kredituei dagokienez.

Foru Aldundiaren aurrekontuko sarrerren egoera 4.200.286.447 euro da, eta honela osatuta dago:

– Ekitaldikiko zorpetzea barne (150.000.000 euro).

– Diruzaintzako gerakinetik eratorritako finantzaketa, 2008ko abenduaren 31n kontsolidatua, 38.957.855 eurokoa.

3.– Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuaren gastuen egoera 17.972.187 euro da ordainketa kredituei dagokienez.

Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuko sarrerren egoera 17.972.187 euro da.

4.– Foru merkataritza-sozietateen aurrekontuen zenbatekoa 394.490.239,99 euro da, eta honela banakatuta dago:

– Izfe SA: ..... 20.718.830,00 euro.

– Bidegi SA: ..... 359.301.556,00 euro.

– Etorlur SA: ..... 14.469.853,99 euro.

Aipatu sozietateen baliabideak eta haietako bakoitzarentzat onartutako zuzkidurak berdinak dira.

Bidegi SA sozietate publikoaren baliabideetan, ekitaldikiko 268.000.000 euroko zorpetzea sartuta dago.

Etorlur SA sozietate publikoaren baliabideetan, ekitaldikiko 7.200.000 euroko zorpetza sartuta dago.

5.– Batzar Nagusien aurrekontuko gastuen egoera 7.653.400 euro da guztira, ordainketa kredituei dagokienez. Sarrerren zenbatekoa berdina izatea aurreikusita dago.

**4. artikulua.**– Zergei lotutako gastu fiskalak.

Gipuzkoako zergei lotutako gastu fiskalak 1.913.123.677,32 euro izatea aurreikusi da.

2.– El estado de gastos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa asciende, en cuanto a créditos de pago, a la cantidad de 4.200.286.447 euros, y en cuanto a créditos de compromiso a la cantidad total de 295.708.216 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2010 se detalla en el anexo II, incluyéndose los créditos correspondientes al Presupuesto Extraordinario de Gestión 2008-2011 que asciende a 38.957.855 euros en cuanto a créditos de pago y a 25.472.836 euros en cuanto a créditos de compromiso.

El estado de ingresos del presupuesto de la Diputación Foral asciende a 4.200.286.447 euros, incluyéndose:

– Endeudamiento correspondiente al ejercicio, por un importe de 150.000.000 euros.

– Financiación procedente del remanente de tesorería consolidado a 31 de diciembre de 2008, por un importe de 38.957.855 euros.

3.– El estado de gastos del presupuesto del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi» asciende, en cuanto a créditos de pago, a la cantidad de 17.972.187 euros.

El estado de ingresos del presupuesto del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi» asciende a 17.972.187 euros.

4.– Los presupuestos de gastos de las sociedades mercantiles forales alcanzan la cuantía de 394.490.239,99 euros, cuyo desglose es el siguiente:

– Izfe, S.A.: ..... 20.718.830,00 euros.

– Bidegi, S.A.: ..... 359.301.556,00 euros.

– Etorlur, S.A.: ..... 14.469.853,99 euros.

Los recursos estimados de las citadas sociedades ascienden al mismo importe que las dotaciones aprobadas para cada sociedad.

Los recursos de la sociedad pública «Bidegi, S.A.» incluyen el endeudamiento correspondiente al ejercicio por importe de 268.000.000 euros.

Los recursos de la sociedad pública «Etorlur, S.A.» incluyen el endeudamiento correspondiente al ejercicio por importe de 7.200.000 euros.

5.– El estado de gastos del presupuesto de las Juntas Generales asciende en cuanto a créditos de pago a la cantidad total de 7.653.400 euros, estimándose los ingresos en idéntica cuantía.

**Artículo 4.**– Gastos fiscales que afectan a los tributos.

Los gastos fiscales que afectan a los tributos del territorio histórico de Gipuzkoa se estiman en 1.913.123.677,32 euros.

## II. TITULUA

## ZORPETU ETA BERMEAK EMATEKO MUGA

**5. artikulua.**– Abalen muga.

1.– Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 109.1 artikuluan jasotakoaren arabera, Foru Aldundiak emandako abalak ezin izango dira 507.200.000 eurotik gorakoak izan 2010eko abenduaren 31n.

2.– Salbuespen modura, Gipuzkoako Foru Aldundiak abala edo beste mota bateko ordezkotzat bermeak eman ahal izango dizkio Hondakinen Kontsortzioari edo bere sozietate instrumentala den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SA sozietateari, proiektuan aldundiak duen partaidetzari dagokion heinean, azpi-egitura horiek finantzatzeko epe luzera hitzar ditzaketen kreditu eragiketetan.

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio berme motak, euren limiteak eta baldintzak ezartzea, merkatu finantzarioen egoeraren eta proiektuan Gipuzkoako Foru Aldundiak daukan partaidetzaren arabera.

**6. artikulua.**– Foru Aldundiaren zorpetze muga.

1.– Gipuzkoako Foru Aldundiaren epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, edonolakoa izanik ere horiek dokumentatzeko modua, ezin izango da 509.332.267,22 eurotik gorakoa izan 2010eko abenduaren 31n.

2.– 2010eko ekitaldian, Ogasun eta Finantza diputatuak egoki deritzen zorpetze eragiketak egin ditzake, diruzaintzaren unean uneko zailtasunei erantzuteko, eragiketa haiek dokumentatzeko erabilitako edozein modutan eta gehienez urtebeteko eperako.

**7. artikulua.**– Foru merkataritza-sozietateak zorpetzeko muga.

1.– Foru merkataritza-sozietate hauen epe luzeko zorpetze eragiketen saldo bizia ezin izango da ondoan aipatutako mugatik gorakoa izan 2010eko abenduaren 31n:

Bidegi SA: 813.000.000 euro.

Etorlur SA: 7.200.000 euro.

2.– Era berean, foru merkataritza-sozietateek diruzaintza beharrak finantzatzeko egoki deritzeten epe laburreko eragiketa finantzarioak egin ditzakete, urtebetetik beherako eperako.

3.– Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 107.4 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, foru merkataritza-sozietateek beren behar finantzarioen berri eman behar diote, behar den aurrerapenez, Ogasun eta Finantza Departamentuari.

## TÍTULO II

## DEL LÍMITE DE ENDEUDAMIENTO Y DE PRESTACIÓN DE GARANTÍAS

**Artículo 5.**– Límite de los avales.

1.– A efectos de lo dispuesto en el artículo 109.1 de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, los avales concedidos por la Diputación Foral no podrán exceder a 31 de diciembre de 2010 la cantidad de 507.200.000 euros.

2.– Excepcionalmente, en el ejercicio 2010, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá avalar al Consorcio de Residuos o a su sociedad instrumental, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A., las operaciones de crédito que concierten a largo plazo para la financiación de las infraestructuras, así como constituir otro tipo de garantías alternativas, atendiendo al grado de participación de la Diputación en el proyecto.

Corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas fijar los tipos de garantía, sus límites y condiciones, atendiendo a la situación de los mercados financieros y al grado de participación de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el proyecto.

**Artículo 6.**– Límite de endeudamiento de la Diputación Foral.

1.– El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de la Diputación Foral, cualquiera que sea la forma en que se documenten, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2010 de la cantidad de 509.332.267,22 euros.

2.– Durante el ejercicio 2010, el Diputado o Diputada Foral de Hacienda y Finanzas podrá realizar las operaciones de endeudamiento que estime necesarias, para atender dificultades momentáneas de tesorería, en cualquiera de las formas en que se documenten, y por un plazo no superior a un año.

**Artículo 7.**– Límite de endeudamiento de las sociedades mercantiles forales.

1.– El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de las sociedades mercantiles forales que a continuación se relacionan, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2010 de:

Bidegi, S.A.: 813.000.000 euros

Etorlur, S.A.: 7.200.000 euros

2.– Así mismo, las sociedades mercantiles forales podrán realizar las operaciones financieras a corto plazo que estimen necesarias para financiar sus necesidades de tesorería, por un plazo no superior a un año.

3.– A efectos de lo dispuesto en el artículo 107.4 de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, las sociedades mercantiles forales deberán comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas sus necesidades de financiación, con antelación suficiente.

Epe luzeko eragiketak egitekotan gero, gutxieneko epea ez da bi hilabetetik beherakoa izango.

### III. TITULUA

#### AURREKONTU KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

**8. artikulua.**– Foru Aldundiaren eta Uliazpi Fundazioaren organismo autonomoaren aurrekontu kredituak.

Gastuen egoeraren kredituak zuzenduko dira aurrekontuetan eta Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak III. tituluaren III. kapituluaren jasotakoaren arabera onartutako aldatetetan baimendutako helburuak betetzera.

**9. artikulua.**– Kredituen lotura.

1.– 2010eko ekitaldian, ordainketa kredituak mugatzaileak izango dira, Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 51.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Ondorengo apartatuetan hainbat salbuespen jasoko dira, dena den.

2.– Mugatzaileak izango dira gastu egoeran duten bereizketa mailan:

a) Foru arau honek 10. artikuluan ezarritakoaren arabera zabalkortzat hartutako kredituak. Nolanahi ere, apartatu horren a) letran jasotakoak ez dira mugatzaileak izango, kapitulu mailan mugatzaileak izango baitira, ez eta b) eta c) letretan jasotakoak ere, kapitulu eta programa mailan mugatzaileak izango baitira.

b) Konpromiso kredituei dagozkien ordainketa kredituak, artikuluko honetako 3. apartatuaren a) eta c) letretan jasotakoa eragotzi gabe.

c) Ekitaldiaren barruan onartutako kreditu gehigarriak.

d) Aurreko ekitaldietako kreditu txertatuak.

e) Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoa eta foru merkataritza-sozietateak finantzatzeko asmoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuan izendatu diren kredituak, baita haien prestazioak ordaintzeko erabili diren kredituak ere.

f) Diru Laguntzen Foru Arauak 20.3.c) artikuluan jasotakoaren arabera zuzenean eman daitezkeen diru laguntza banakatuei dagozkien kredituak.

g) Finantzaketa lotuko gastuei dagozkien kredituak, artikuluko honen 3.a) artikuluan jasotakoa eragotzi gabe.

En el caso de las operaciones a largo, el plazo mínimo no será inferior a dos meses.

### TÍTULO III

#### DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS Y DE SUS MODIFICACIONES

**Artículo 8.**– Créditos presupuestarios de la Diputación Foral y del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi».

Los créditos del estado de gastos se destinarán al cumplimiento de las finalidades para las que fueron autorizados en los presupuestos y en las modificaciones aprobadas conforme a lo previsto en el Capítulo III del Título III de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario y en la presente Norma Foral.

**Artículo 9.**– Vinculación de los créditos.

1.– Durante el ejercicio 2010, los créditos de pago tendrán carácter limitativo conforme a lo previsto en el artículo 51.2 de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, con las excepciones previstas en los apartados siguientes.

2.– Tendrán carácter limitativo con el nivel de desagregación con que aparezcan en el estado de gastos:

a) Los créditos declarados ampliables conforme a lo establecido en el artículo 10 de esta Norma Foral, con excepción de los previstos en la letra a) de dicho apartado, que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo, y los previstos en las letras b) y c), que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa.

b) Los créditos de pago correspondientes a créditos de compromiso, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 letras a) y c) de este artículo.

c) Los créditos adicionales aprobados durante el ejercicio.

d) Los créditos incorporados de ejercicios anteriores.

e) Los créditos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa que tengan como destino la financiación del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi» y de las sociedades mercantiles forales, así como los créditos destinados al pago de las prestaciones que efectúen.

f) Los créditos correspondientes a subvenciones individualizadas que puedan concederse de forma directa, conforme a lo previsto en el artículo 20.3.c) de la Norma Foral de Subvenciones.

g) Los créditos correspondientes a gastos de financiación afectada, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3.a) de este artículo.

h) Beren izaera berezia, garrantzia edo helburua dela eta, zehaztaperen maila berezia behar duten kredituak, Ogasun eta Finantza Departamentuak hala erabakitzen duenean.

3.– Mugatzaileak izango dira kapitulu eta programa mailan:

a) Proiektu kofinantzatu beraren ordainketa kredituak.

b) II. kapitulu (ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak) sartutako kredituak.

c) Diru-laguntza lerro bereko laguntzak finantzatzekoak diren kredituak.

d) Izaera berezia, garrantzia edo helburua dela eta Ogasun eta Finantza Departamentuak erabakitzen dituen kredituak.

4.– Konpromiso kredituak horiei lotutako ordainketa kredituen inguruan titulu honetan jasotako arauen bidez erregulatuko dira.

**10. artikulua.**– Kreditu zabalkorrak.

1.– Kreditu zabalkortzat hartzen dira Foru Aldundiaren eta Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuetan jasotako kreditu hauek, Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 53. artikuluan xedatutakoaren arabera:

a) I. kapituluko gastuak (langileria gastuak), foru arau honek aplikaziozko xedapenetan jasotakoaren arabera eta V. titulu jarritako mugapean.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa eta zorpetze gastuak ordaintzeko erabilitako kredituak.

c) Zerga itunduen bilketan parte hartzeagatik estatuaren aldeko kupoa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko ekarpena eta Gipuzkoako udalen aldeko ekarpena ordaintzeko izendatu diren zenbatekoak.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak abalaturako kreditu eragiketetan izan diren galerek eragindako diru betebeharrak ordaintzeko diren kredituak.

e) Batzar Nagusien eta Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuak finantzatzeko erabilitako kredituak.

f) Europar Batasunarekin batera finantzaturako programetan izendaturako kredituak.

g) Langileei ordainsarien aurrerakinak emateko erabilitako kredituak.

h) Beste eskumen batzuk hartzearen ondorio diren kredituak.

i) Aurrekontu Orokorren eranskin numerikoetan espresuki adierazten diren kredituak.

2.– Gizarte Politikako Departamentuak aldizkako diru prestazioei buruzko programen bidez familiei egindako transferentziak zabalkorrak dira, prestazio

h) Aquellos créditos que por su especial carácter, relevancia o destino requieran un nivel de concreción específica, y así se determine por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

3.– Tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa:

a) Los créditos de pago correspondientes a un mismo proyecto cofinanciado.

b) Los créditos incluidos en el Capítulo II –gastos corrientes en bienes y servicios–.

c) Los créditos destinados a financiar subvenciones de una misma línea subvencionable.

d) Aquellos créditos que por su especial carácter, relevancia o destino determine el Departamento de Hacienda y Finanzas.

4.– Los créditos de compromiso se regirán por las reglas del presente título aplicables a los créditos de pago a los que estén afectados.

**Artículo 10.**– Créditos ampliables.

1.– Conforme al artículo 53 de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, se consideran ampliables los siguientes créditos incluidos en los presupuestos de la Diputación Foral y del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi»:

a) Los gastos del Capítulo I –gastos de personal–, según lo establecido en las disposiciones aplicables y con las limitaciones establecidas en el Título V de esta Norma Foral.

b) Los que se destinen al pago de intereses, amortización de principal y gastos derivados del endeudamiento.

c) Las cantidades consignadas para el pago del cupo al Estado, aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco y aportación a los municipios del territorio histórico por su participación en la recaudación de tributos concertados.

d) Los créditos destinados al pago de las obligaciones derivadas de quebrantos en operaciones de crédito avaladas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) Los créditos destinados a financiar el Presupuesto de las Juntas Generales y el del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi».

f) Los créditos correspondientes a actuaciones cofinanciadas por la Unión Europea.

g) Los créditos destinados a la concesión de anticipos de remuneraciones al personal.

h) Los que sean consecuencia de la asunción de nuevas competencias.

i) Los que se señalen expresamente en los anexos numéricos de los Presupuestos Generales.

2.– Las transferencias a familias del programa de Prestaciones Económicas Periódicas del Departamento de Política Social son ampliables en función de las

mota bakoitzaren berariazko araudiaren aplikaziotik eratorritako diru beharren arabera.

Programa honetan soberan geratu diren kredituak ezin izango dira aurrekontuko beste gastu batzuk finantzatzeko erabili.

**11. artikulua.**– Konpromiso kredituak sortu eta birbanatzeko gehieneko muga.

Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza diputatuaren proposamenez eta foru departamentu interesatuaren edo Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren ekimenez, konpromiso kreditu gehiago edo horien urteko zenbatekoak birbanatzea onar dezake, haiek aplikatzen diren ekitaldien kopurua ez bada 4 urtetik gorakoa eta haien zenbateko osoak ez badu gainditzen foru arau honek onartutako konpromiso kredituen % 10.

Urteanitzeko gastua finantzatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenak ez dira konputatuko aurreko paragrafoan jarritako mugaren ondorioetarako.

**12. artikulua.**– Kreditu gaikuntzak.

Gastu aurrekontuan gaikuntzak sor ditzakete beste sarrera batzuek, zerga itunduak barne, sarreren hasierako aurrekontuan jasotako zifrak gainditzen badi-tuzte, Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 58.8 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Gaikuntza horien helburua izango da:

a) Estatuaren aldeko kupoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko ekarpenak eta Gipuzkoako udal-errien aldeko ekarpena ordaintzea, zerga itunduen bilketan parte hartzeagatik.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa edo zorpetzearen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzea.

c) Foru Aldundiak parte hartzea eskatzen duten kapital eta finantza eragiketa bereziak egitea.

#### IV. TITULUA

##### AURREKONTUAREN KUDEAKETA

**13. artikulua.**– Diru laguntzak.

1.– Diputatu nagusiak eta foru diputatuek nork bere departamentuko aurrekontuaren kargura eman ditzakete Diru Laguntzen Foru Arauak 20.3.c) artikuluan aipatutako diru laguntza banakatuak, 15.000 eurotik gorakoak ez badira.

2.– Diru laguntza izendunen zenbatekoa osorik edo zati batean gutxitzeko, haiek jasoko dituen pertsona edo entitatearen adostasuna edo ukoa beharrez-

necesidades económicas derivadas de la aplicación de la normativa específica de cada tipo de prestaciones.

Los créditos excedentarios de este programa no podrán destinarse a financiar otros gastos del presupuesto.

**Artículo 11.**– Límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso.

El Consejo de Diputados, a propuesta del Diputado o Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, y a iniciativa del departamento afectado o del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi», podrá aprobar nuevos créditos de compromiso, así como la redistribución de sus anualidades, siempre que el número de ejercicios a que se apliquen no sea superior a 4 años y su importe total no sobrepase el 10% de los créditos de compromiso aprobados en la presente Norma Foral.

Las aportaciones de las personas físicas o jurídicas que financien un gasto de carácter plurianual no computarán a efectos de la limitación establecida en el párrafo anterior.

**Artículo 12.**– Habilitaciones de crédito.

A los efectos de lo previsto en el artículo 58.8 de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, podrán dar lugar a habilitaciones en el presupuesto de gastos otros ingresos realizados, incluidos los tributos concertados, que superen las cifras consignadas en el presupuesto inicial de ingresos. El destino de estas habilitaciones será:

a) El pago del cupo al Estado, la aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco o la aportación a los municipios del territorio histórico de Gipuzkoa por su participación en la recaudación de tributos concertados.

b) El pago de intereses, amortización de principal u otros gastos derivados del endeudamiento.

c) Operaciones de capital y financieras de carácter excepcional que requieran la actuación de la Diputación Foral.

#### TÍTULO IV

##### DE LA GESTIÓN PRESUPUESTARIA

**Artículo 13.**– Subvenciones.

1.– El Diputado o Diputada General y los diputados y diputadas forales podrán conceder las subvenciones individualizadas a que se refiere el artículo 20.3.c) de la Norma Foral de Subvenciones, con cargo al presupuesto de su departamento, siempre que su importe no sea superior a 15.000 euros.

2.– La minoración, total o parcial, de las subvenciones nominativas requerirá la conformidad o renuncia de la persona o entidad destinataria de las

koa izango da. Aipatu ukoa ez da beharrezkoa izango diruz lagundutako proiektu edo jarduera amaitu izana frogatu ondoren egiten diren gutxipenetan, frogatutako gastuen zenbatekoa txikiagoa izateagatik hari emandako diru laguntzarena baino.

**14. artikulua.**– Proiektu kofinanziatuak.

Beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek osorik edo zati batean finantzatutako gastu proiektuak behar bezala identifikatuta egongo dira hasierako aurrekontuan edo kreditu aldaketarako espedienteetan. Era berean, finantzaketa bideak zeintzuk diren adierazi beharko da berariaz.

Aurrekontuen gastuen egoeretan kreditu atxikipe-nak egitea erabaki dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak, kreditu jakin batzuen finantzaketari lotutako baliabideen aurreikuspena txikiagoa denean hasieran aurreikusitakoa baino.

**15. artikulua.**– Gastua gauzatzeko muga.

1.– Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza-ko foru diputatuaren proposamenez, kredituak atxikitze edo prebentziozko beste zenbait neurri hartzeko agindu dezake, gastuaren kontrola bermatzearren, bertiere aurrekontua gauzatzeko beharrezkoa bada.

Aipatu kredituak liberatzeko, horien atxikipenerako behar den tramite bera egin beharko da.

2.– Hasieran aurreikusitako ordainketa kredituak atxikitzea agin dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak, baldin eta proiektuen finantzaketa horien exekuzio erritmora egokitze beharra delata konpromiso kredituak onartzen badira.

3.– Krisiaren aurkako planaren partidetakosoberazko kredituak plan beraren beste gastu batzuek finantzatzeko bakarrik erabil daitezke.

4.– Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren inbertsioak finantzatzeko partidako soberazko kreditua ezin izango da erabili aurrekontuko beste gastu batzuek finantzatzeko.

**16. artikulua.**– Gastua udalerrika banatzea.

1.– Udalerrika banatuko da 2010eko Aurrekontuan udalerriz udalerriri banatu diren aurreikuspenei lotutako gastu partiden exekuzioa.

2.– Finantza eta Aurrekontu zuzendari nagusiak udalerriz udalerriri banatzeko modukotzat har ditzake 2010eko Aurrekontuan udalerrien arabera banatu diren antzeko bestelako gastu partidak.

3.– Departamentuek gauzatutako gastua udalerrika banatzeko behar den informazioa emango diote Ogasun eta Finantza Departamentuari.

mismas. No requerirán dicha renuncia las minoraciones que se efectúen una vez acreditada la finalización del proyecto o actividad subvencionada, siempre que el importe de los gastos justificados sea inferior al de la subvención concedida.

**Artículo 14.**– Proyectos cofinanciados.

Los proyectos de gasto financiados, total o parcialmente, por otras personas físicas o jurídicas deberán estar debidamente identificados en el Presupuesto inicial o en los expedientes de modificación de créditos, debiendo constar de modo expreso sus fuentes de financiación.

El Director o Directora General de Finanzas y Presupuestos podrá acordar las correspondientes retenciones de crédito en los estados de gastos del Presupuesto, cuando la previsión de los recursos realmente afectados a su financiación sea inferior a la inicialmente prevista.

**Artículo 15.**– Limitación a la ejecución del gasto.

1.– El Consejo de Diputados, a propuesta del Diputado o Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, podrá ordenar la retención de créditos u otras medidas preventivas que garanticen la contención del gasto, siempre que la ejecución del presupuesto así lo aconseje.

La liberación de los créditos citados, requerirá igual tramitación que la prevista para su retención.

2.– En el supuesto de que se aprueben créditos de compromiso como consecuencia de la necesidad de adecuar la financiación de los proyectos a su ritmo de ejecución, el Director o Directora General de Finanzas y Presupuestos podrá ordenar la retención de créditos de pago previstos inicialmente.

3.– Los créditos excedentarios de las partidas que conforman el plan anticrisis sólo podrán destinarse a la financiación de otros gastos dentro del propio plan.

4.– El crédito excedentario de la partida destinada a la financiación de inversiones al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa no podrá destinarse a financiar otros gastos del presupuesto.

**Artículo 16.**– Municipalización del gasto realizado.

1.– Se municipalizará la ejecución de las partidas de gasto cuyas previsiones hayan sido distribuidas por municipios en el Presupuesto 2010.

2.– El Director o Directora General de Finanzas y Presupuestos podrá calificar como municipalizables otras partidas de gastos de naturaleza similar a las distribuidas por municipios en el Presupuesto 2010.

3.– Los departamentos suministrarán al Departamento de Hacienda y Finanzas la información necesaria para municipalizar el gasto ejecutado.

**17. artikulua.**– Transferentziak Batzar Nagusiei eta foru sektore publikoko gainerako entitateei.

1.– Batzar Nagusietako Mahaiak eskatu ahala transferituko dira Batzar Nagusien aurrekontua finantzatzeko erabiliko diren Foru Aldundiaren aurrekontuko kredituak.

2.– Foru merkataritza-sozietatei eta Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoari egiten zaizkien transferentziak haiek dituzten behar finantzarioen arabera egingo dira.

## V. TITULUA

### LANGILERIAREN ETA PASIBOEN KREDITUAK

#### I. KAPITULUA

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA ULIAZPI FUNDAZIOA FORU ORGANISMO AUTONOMOA

**18. artikulua.**– Langileen ordainsariak.

1.– Kasu bakoitzean erabili beharreko araudiari jarraikiz ezarriko dira Foru Aldundian eta Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoan aritzen diren langile guztien ordainsari osoak 2010. urtean.

2.– Diputatu nagusiaren, foru diputatuen, zuzendari nagusien, foru merkataritza-sozietateetako gerenteen eta horiekin parekatutako ordainsariak, eta inoizkako langileen 2009ko abenduaren 31n indarrean egongo direnak izango dira.

**19. artikulua.**– Langile plantilaren osaera.

